#astekonomia

Azaroaren 2tik 6ra
bitarteko astea

Afiliazioaren maximo historiko berria urrian



Iturria: Gizarte Segurantza

Gizarte Segurantzako afiliazioak urte arteko % 2,4 egin zuen gora urrian, eta beste maximo historiko bat lortu zuen, 1.056.000 afiliatu baino gehiago izan baitzituen. Migratzaileak erregularizatzeko ezohiko prozesuak markatutako testuinguru batean, hazkundea handiagoa izan zen emakumeen artean (%2,5) gizonen artean baino (%2,3). Sektoreka zerbitzuek izan zuten hazkunde handiena (%2,7).

Erregistratutako langabezia %3,7 hazi zen urrian



Iturria: Lanbide.


Testuinguru horretan, erregistratutako langabeziak urte arteko % 3,7 egin zuen gora urrian, 111.553 pertsonara arte. Hazkundea, neurri handi batean, atzerriko biztanleen artean gertatu zen (%24,9), biztanleria nazionalaren artean, berriz, % 1,5 jaitsi zen. Sexuen arabera, langabezia gehiago hazi zen gizonen artean (%5,4) emakumeen artean baino (%2,4).

Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila

#astekonomia

Azaroaren 2tik 6ra
bitarteko astea


Industriaren produkzioak %4,4 egin zuen gora Euskadin



Iturria: Eustat.

Eustatek argitaratutako datuen arabera, **Euskadiko industriaren produkzioa urte batetik bestera %4,4 hazi zen irailean.** Ondasunen helburu ekonomikoaren arabera, gehikuntzak erregistratu ziren ekipamenduko ondasunetan (%10,3), energian (%3,2) eta bitarteko ondasunetan (%2,0). Kontsumo ondasunak %2,7 murriztu ziren.

Txikizkako merkataritza %1,7 hazi zen Euskadin



Iturria: Eustat.

Eustaten datuen arabera, **Euskadiko txikizkako salmentak %1,7 hazi ziren urte batetik bestera 2026ko hirugarren hiruhilekoan.** Osagaien artean, automobilgintzarako erregaiak nabarmendu ziren, %3,4ko igoerarekin, elikaduraren (%2,1) eta gainerako produktuen (%0,8) hazkunde neurritsuagoen aldean. Halaber, enplegua % 0,5 hazi zen urte batetik bestera.

Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila